



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2015EKO ABENDUAREN 2AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2015eko abenduaren 2an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2015KO AZAROAREN 13KO AKTAREN ONARPENA**

2015ko azaroaren 13an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2015ko azaroaren 13an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- 2015EKO URTERAKO IBARRAKO IRABAZI ASMORIK GABEKO KIROL ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEA**

2015eko urriaren 9ko Tokiko Gobernu batzordeak 2015erako ibarrako irabazi asmorik gabeko kirol erakundeetara zuzendutako diru-laguntzen oinarriak onartu zituen (GAO 200 zb, 2015eko urriaren 20an argitaratua).

Dagokion epea eman ondoren, 5 elkartek aurkeztu zituzten beren diru-laguntza eskaerak. Eskaera horiek aztertuta, eta elkarteetara egindako akatsak konpontzeko epea eman ondoren, Kirol teknikariak honako diru-laguntza proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzordeari, bere onarpena eman diezaion:

<b>Elkartea</b>	<b>Diru kopurua</b>
Ibarrako Sendi Ekintza – Pilota eskola	3.000 €
Lauburu K E	24.800 €
Lokatzetan Kirol Elkarte	1.800 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	3.500 €
Ibarrako Sokatira taldea	4.900 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>38.000 €</b>

Aipatu kopuru horiek ordaintzeko 430.341.00.00 partidari nahikoa kreditu dago (41.600 €daude).

## **2. ESKOLA KIROLA**

Euskadiko Kirolaren 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko II. Tituluak, antolamendu administratiboari buruzkoak, 6. artikulua a) eta e) idatz-zatietan, honako hau dio:

“udalei dagokie, zeini bere lurralde esparruan, eskumen hauek betetzea:

- a) Lurralde historikoetako foru organoek onartutako eskola kiroleko programak burutzea, haiekin koordinatuta jokatu.

Ikusirik, Uzturpe ikastola dela ibarrako udalerrian eskola kirola kudeatzen duen hezkuntza zentro bakarra.

Ikusirik, Kultura, Gazteria eta Kirol departamentuak Uzturpe ikastolaren eskola kirola onartu duela. Teknikari honek Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzen dio eman diezaiola Uzturpe Ikastolari **3.600 €diru-laguntza** Eskola Kirola sustatzeko. Diru kopuru hori da Gipuzkoako Foru Aldundiak



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Ibarrako udalari eman dion kopuruaren bikoitza da, hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zatia eta udalaren zatia baturik. Aipatu kopurua ordaintzeko nahikoa diru badago 430.341.00.00 partidana. Dagokion tokian eragina izan dezan sinatzen dut, Ibarran, 2015eko abenduaren batean.

Kirol teknikariak 2015ko abenduaren 1an egindako proposamena kontutan izanik

Hona, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea honako diru-laguntzak ematea 2015erako ibarrako irabazi asmorik gabeko honako kirol erakundeei:

<b>Elkartea</b>	<b>Diru kopurua</b>
Ibarrako Sendi Ekintza – Pilota eskola	3.000 €
Lauburu K E	24.800 €
Lokatzetan Kirol Elkarte	1.800 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	3.500 €
Ibarrako Sokatira taldea	4.900 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>38.000 €</b>

Ordainketa 430.341.00.00 partidara egotziko da

**BIGARRENGOA:** Onartzea Uzturpe Ikastolari 3.600 eurotako diru-laguntza ematea Lurralde historikoetako foru organoek onartutako eskola kiroleko programak burutzeagatik. Ordainketa 430.341.00.00 partidara egotziko da.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri eman Kontuhartzailletza departamentuari dagokion ordainketak egin ditzan. 2015eko urriaren 20ko GAO (200zkan) argitaraturiko diru-laguntzen oinarrien 15. artikulua araberaren egingo da ordainketa (bi epetan: lehenik %60a eta gainerako %40 zuriak aurkeztean).

**LAUGARRENGOA:** Erabaki hau jakinarazi Ibarrako Sendi Ekintza-Pilota eskolari, Lauburu K Eri, Lokatzetan Kirol Elkarteari, Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Klubari, Ibarrako Sokatira taldeari, Uzturpe Ikastolari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

### **3.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta berrogei direnean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.